

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Zure inguruko (familiakoen, lankideen, lagunena...) autoak ere ezagutu nahi ditugu! Ez galdu haietako bati **elkarrizketa bat** egiteko aukera paregabea! Honako kontu hauen inguruan egin ahal dizkiozu galderak: non aparkatu ohi duen (kalean, garajea...), nolako den autoa, zergatik erosi zuen, zertarako erabiltzen duen, zenbatean behin erabiltzen duen, izenik jarri al dion... Behin elkarrizketa eginda, **kontatu** ikaskideei zer informazio eman dizun, zerk harritu zaituen gehien...
- ✓ Nola atera zenuen gidabaimena (autoeskola, Internet...)? Zenbatgarrenean atera zenuen gidabaimena? **Irakurri** Gidabaimena nola atera izeneko testua, **grabatu** audio labur bat zeure esperientzia kontatzeko, eta **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ Autoa gidatzeak aldatzen al dizu umorea (onerako zein txarrerako)? **Irakurri** Autoa eta umorea izeneko testua, **idatzi** testu labur bat, horren inguruko zeure iritzia azaltzeko, eta **igo** euskaltegiaren blogera.

### Internet eta hedabideak aprobetxatuta:

- ✓ Geratu ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **bi dokumentu hauek (bata, testu idatzia; bestea, bideoa)**. **Irakurri** edo **ikusi**, nork berea, **egin** laburpentxo, eta **elkarri azaldu**.
  - Auto elektrikoa ate-joka (*Ikasbil* ataria). Autoa 1886. urtean sortu zuten, eta ordutik etengabeko garapena izan du. Petrolioak mugitzen ditu gure artean ditugun auto gehienak, baina horrek bi ondorio uzten dizkigu: berotegi-efektua areagotzea eta petrolioaren agortzea.
  - Gidaririk gabeko ibilgailuak (*Teknopolis* saioa). 'Google'k gidaririk gabeko autoaren prototipoa aurkeztu du. Ez du bolanterik, ezta azeleratzeko eta frenatzeko pedalik ere. Bideo honetan, auto honi buruzko xehetasun gehiago dituzu.
- ✓ Autoa partekatzea aukera eroso, azkar eta merkea omen da. Ados? Zer irizten diozu autoa partekatzeari? Hona hemen gai horren inguruan egin ditzakezun bi jardura:
  - **Entzun** Autoa partekatzea: aukera eroso, azkar eta merkea izeneko audioa, eta **idatzi** testu labur bat, gaiaren inguruan duzun iritzia azaltzeko. Ondoren, **igo** euskaltegiaren blogera.
  - **Sartu** *Ikasbil* atariko helbide honetan, eta **idatzi** hor proposatzen diren bi idazlanetako hau: Autoa partekatzeko zerbitzua.
- ✓ Askotan, zenbat jira eta buelta ematen dugu autoa aparkatu nahian? Bada abian jarri duten ekimen berritzaile bat, aparkatzeko leku baten bila dabilzanak aparkatzeko plaza pribatuen jabeekin harremanetan jartzeko. Ideia ona ala txarra iruditzen zaizu? **Irakurri** horren inguruko albiste, eta **grabatu** audio labur bat, zure iritzia azaltzeko. Ondoren, **igo** euskaltegiaren blogera.
- ✓ **Bisitatu** aniztasun funtzionala duten pertsonen elkartearen webgunea, eta **bildu** honen inguruko informazioa, azken eginkizunerako testua sortzen lagunduko dizu-eta: nolako arazoak aurkitzen dituzte aniztasun funtzionala duten pertsonen bizitzaren gainontzeko eremuetan (hirigintzan, hezkuntzan, lanean...)?